

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

NEKAZARITZA SAILA

MENDI ZERBITZUA

Arabako Lurralde Historikoko Mendien Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, mugatze egoeran dagoela adieraztea onura publikoko 80 zenbakiko mendia, "Arrola y Aranbalza" izeneko, Okondoko udalerrian dagoena eta udal horren jabetzakoa dena

Okondoko Udalak eskatuta eta Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honekin batera doan eranskinean zehaztutako mugen arabera neurtu eta mugarrituko da, behin-behinean, onura publikoko 80 zenbakiko mendia, "Arrola y Aranbalza" izeneko. Mendi hori Okondoko (Araba) eta Gordexolako (Bizkaia) udalerrietan dago eta Okondoko udalarena da. Horiek horrela, honako hau erabaki da:

"Arrola y Aranbalza" izeneko onura publikoko 80 mendia mugatze egoeran dagoela adieraztea. Adierazpen horri ez zaio murrizketarik jartzen.

Neurketa lanei hasiera emango zaie ediktu hau ALHAOn argitaratu eta bi hilabetera, sasoiz eta era egokian iragarriko diren toki-egunetan. Mugakide ezagunei edo/eta katastroan daudenei pertsonalki deituko zaie.

Egintza horretara joan beharko dute mugakideek eta interes legitimoa dutela egiaztatzen duten pertsonak. Neurketa lanetara aurkezten ez direnek edo legezko ordezkari edo borondatezko bat igortzen ez dutenek ezingo dute gero erreklamaziorik aurkeztu, hargatik eragotzi gabe alegazioak jabetza erregistroan inskribatutako tituluekin batera aurkezten dituztenek izan dezaketen eskubidea.

Ediktu hau argitaratzen denetik 45 egun naturaleko epearen barruan, bai mendiaren edo mendiaren zati baten jabetzarako eskubidea dutela jotzen dutenek bai mugakide izanik eduki dezaketen eskubidea egiaztatzen nahi dutenek kasuan kasuko agiriak aurkeztu beharko dituzte Okondoko udal bulegoetan (Zudibiarte, 2. zk., 01409-Okondo) edo Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuan (Bulego teknikoak, Probintzia plaza, 4, 1. ezk. 01001 Vitoria-Gasteiz).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 20a

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCION QUINTANA URIARTE

ERANSKINA

"Arrola y Aranbalza" izeneko onura publikoko 80 zenbakiko mendiaren mugak (katalogoaren arabera):

Iparaldean: mendi erkidea eta Gordexolako jabetza partikularrak.

Ekialdean: Okondoko mendi partikularrak.

Hegoaldean: Okondoko mendi partikularrak.

Mendebaldean: Okondoko mendi partikularrak.